

Gotzai Berria

Badu bere garrantzia Gipuzkoako erriarentzat eta Gipuzkoako kristau-ekartearentzat Gotzai Laguntzailea izendatzeak. Guk nahi badugu eta nahi ez badugu badu bere indarra Elizak. Eta badu bere indarra Gotzaiak. Horregatik nahi izaten dugu indar harrek aldero egin dezala gure aldera.

Kristau-erriari eta apaiz-jendeari gehiegi galdatu gabe aukeratu izan bada ere, aitor dezagun kristau-ekartearen onari bakarrik begiraturik autatua izan dela. Oraingoan ez da goiko zenbaiten gogoia egiteagatik izendatua izan. Agintedun zenbaitentzat mingarri izanaren Jainko Erriaren onari begiratu zaio. Hau benetan pozgarri eta eskergarri zaigu. Behar lituzke kristau-erriak honelakoetan autabideak, baina ez da erraz oraingo. Gainera aitor dezagun gutxienez "apaiz-batzordearen" iritzia onartua izan dela hontan eta kristau-erriak eta apaiz-jendeak aukera zezakeen gizon batetan jarriak izan direla begiak.

Aukera zitekeen gizonik egokienetakoa autatu dela uste dugu eta kristau-ekartearen gogoia bete dela.

Ez goaz Joxe Mari Setienen goralpenik egitera, ez bait du gure goralpenen beharririk. Baina zenbait pentsakizun jaulki nahi gintuzke jendearen errotara. Ez dezagun pentsa gure Erriaren eta hemengo kristau-ekartearen gaitz guztiak senda ditzakeenik. Ez dezagun ar Mesias mirarigiletzat. Ez dezagun ar errotzen ari den mundu zahar baten eustailletzat.

Ekka dezaiozun Eliza uztartua dagoen uztarririk askatzen saia dedila. Kristau-ekarteko beste edenorrek baino indar gehiago du hortarako gotzaiak. Ez dedila dirudunen eta agintedunen morroi izan. Egon dedila erriko jende behartsuaren zerbitzuan. Egon dedila kristau-ekartearen zerbitzuan. Jardun dedila egiten mirabetzan.

Baina hau guztia betetzen kristau ekarteak lagundu behar dio. Hortarako gizarteen zer leku behar duen jakin behar du kristau-ekarteak. Gizarteen zerbitzuan dagoen sinestun-ekarte bat besterik ez dela jakin behar du. Gizon bakoitzak onartzen duen eran eta neurrian gizonaren bizitzari erantzun osoago bat eskeintzen dion ekarte xume eta apala dela. Azken etorkizun eta geroari buruz galdezka ari denari eta gizonaren sentiduari buruz kezkatua dagoenari itxaropentsu bezain dardardiar den erantzun bat eman nahi dion sinestun-ekartea dela.

Bukatu da eta behin betirako, nik uste, Erri osoa kristau-erri izate hori. Erri osoa sinestun izate hori. Euskaldun fededun izate hori.

Erriaren errikeran, kulturari, izkuntzan, kondairan eta aurrera-bidean tertaturik jardun behar duen fededunen-ekartearen bere lekua du Gotzaiak. Ez jauntxo lekua, zerbitzari lekua baizik. Ez dezagun dena Gotzaiak eta Gotzai-laguntzaileak, ain zuzen, konpontzea nahi izan. Ezin du eta ez dagokio.

"Gotzaiaren zuzen edo oker jardutearen aurretik eta gainera bakoitzaren erantzukizuna dago". Ez dezagun ahantz. Gaur, Jainkoari eskerrak, gero eta gutxiago dezake gotzai batek, nahiz eta oso argia eta langilea izan.

Bazan garaia eta noizbait ireki ditzazu ateak zure Erriko kristau-ekartea. Elkartek hortako askok lehen ere irekitzen zizkizuten Ongi etorria zure Erriara eta zure erriko sinestunen-ekartera. Onerako izan dedila.

SIGMUND FREUD

Ez da azti bat. Ez da sorgin-erazko bihurturik egiten dakien norbait, gizonaren barrua irakurtzen dakien jakintsu bat baizik. Baiña nik ez dut giza-barrunberrak buruz duen iritziak mintzatu nahi. Gizonaren barruan aurkitzen dituen hildak, zauri eta gaitz asko kanpoko norbaitetik edo zerbaitek egina dira. Gizar-terako arazoak irakurtzen daki gizonaren barrunbean. Ez daki gizar-terako arazo hieki nola zuzendu, baiña erdi-erdi ematen eta salatzen ditu asko.

Freud ez da sozialista bezala hartzen. Ez zuzen gizar-terako bide baten egiteko ametsik ere egin, agian. Baiña bai argazki ederra atera ziola bere garaiko gizar-terari gizonaren barruko gaitzak ikusiz. Gizar-terako ahaldunek eskuratu ditzuten gizon izateko bide guztiak agintaritzaren, giza legearen, ordenaren, neurriaren... aitakiz.

Egiazko egoera da hau. Hain egiazkoak Gizonaren jokabidearen iturriratzat har ditzake. Baiña uka ezinezkotzat ez ezik alde ezinezkotzat ere jotzen du egoera hau. Alferrikakoa da aurka egitea. Barruko gaitz-terako eta larritasunetik ateratzeko bide bakarra egoera hontan ondo itsatsa da. Beste sendabiderik ez dauka barru larriko gizonak. Ez dago bakoitzari dagokion janzerarik egiterik. Egia da egoeraren ahal den ondoen moldatu behar da.

Ez da harrotzekoa Freud-ek egoera hori gorrotatzea. Mendean hartzen bait du gizona gizar-terko zapaiz-terako eta menderatzaileak bere arau eta legeak. Beste gizon arrotz bat sortzen dute gizonaren barruan, gehieneta debekatutako diren arau eta lege hauek. Gizon bakoitzak gaitzak epaitzeko, neurtzeko, pentsatzeko eta erabakitzeko ezaguerara heldu baido lehen beste gizon arrotz batek, beste «ni» arrotz batek menderatzen du. Gizar-terko zapaiz-terako ezartzen dion «ni» arrotza gailentzen zaio. Nahitaz gizar-terko egoeraren alde jarri beharra, duen «ni» arrotza.

«ni» arrotz horrek dolareak saiatzen bezain estu zapaldurik eta horregatik dauka nere egiazko «ni» arrotza. Horregatik porrot egiten

du gizar-teraren egoera galgarri horren aurka dabilen hainbestek eta hainbestek. Marcusek dionez gizar-terko etsal zapaltzaile hori besterik ez da «ni» arrotz hori. «Ni» arrotz horren jostailu bat besterik ez da neure egiazko «ni» hori. «Haren» esanetara dago «denakoa» hau. Ez du beregisa ezer egiteko ahalmenik eta eskubiderik. Zaharo atxikia eta lotua dauka.

Holaz guziz ere oharitzen ari da piskana piskana «ni» zapaldu eta erdihil hori bere egoeraz. Eta azpitik atera egin nahi luke. Askatu egin nahi luke, nahiz eta ez beti bide egokiak har: kirola, zinea, autoa, drogak... Bide horrek bizitzara, ez heriotzera darama nere egiazko «ni» hori.

Baiña hioiz kukurruku jo ere, errotzen du azpi-azpitik eta «ni» arrotz eta gizar-terko etsal zapaltzailearen aurka altxa ere egin da. Baiña kanpoko erasoak ez ezik barruko korapilloa ere ez da berriketako izaten. Erru eta pekatu irudipenak jartzen zaizkio «Ni» arrotzak erabakitzen dio ona ala txarra dan. Gizar-terko menperatzaileak ezartzen dio «ni» arrotzaren bidez onaren eta txarren bereizkuntza. «Ni» arrotzari ondo dagoakiona ona da eta gaitzki datorakiona txarra da. Beraz, gizar-terko menperatzaileari ondo dagoakiona ona da eta gaitzki datorakiona txarra da.

Nola erazul erruaren eta pekatuaren ustea eta lurldpena? Freud-ek ez du hortarako biderik sumatzen. Gaitzesten eta gorrotatzen duen gizar-terko murgildurik datza. Ez zail bi «ni» hoken, arrotzaren eta etxekoaren artean pakeak egitea baino bide egokiagorik bururatzan. Blak adiskidetu. Blen etsalagoaren gaitz-teratik jarri. Ez barruko egoera eta gizon txartu, goxatu baizik.

Baiña hau egiazko «ni» hori zeharo lotzeko bide da. Lehen baiña azpago jartzeko bidea.

Batzerturik eta isildurik dagoen nere egiazko «ni» hori askatzeetik abiatu behar dugu. Iraul ditzake gizar-terko egoera. Uxa ditzake nere barrurik «ni» arrotza. Beste askabiderik ez da.

IRASTORTZA

“ BIZITZA ETA MUNDUA ALDATU ”

mahain - inguru baten inguruan

Agertzen diren idazlan eta egin diren bilkuretatik epaitu behar baldin bada, Frantzia, urte honetan, ezta-baidaguerik estimatuenetakoa izan da hauxe.

Gizona bere inguruaren kontzientzia hartzen ari da. Ez dela bera bakarrik mundu hontan bizi, ez dagoela lurrean bizi-iturriekin nolnabhi ibiltzerik. Gizona gero eta gehiago geroari begira bizi denez gero, oraingo martxan mundua baldin badao, hemendik urte batzuetara zer gerta litekean pentsatzen hasi da. Eta ikusi du ikusi lurrean aberastasunak agortaraziz, ura erabat zikinduz, airea mikrobioz beteaz, bizimodua ezina izan dela. Zer egin?

Baina zer egin behar den edo zer egin litekeen erabaki aurretik (edo erabakitze), fenomeno horren kausetara joan behar da. Zergatia, ba, labur esanda, gaurko lantegiztatze-moduari ezartzen zaio. Eta honen azpian, kapitalismoa ikusten da.

Baina ez dago hemen ere gelditserik. Edward Goldsmith ekologista ingelesak dionez, lantegi nazionalizatuak ere berdin zikintzen bait du ingurua, kausa nagusia, hona zientzia eta teknika gizonaren gain daudela. Michel Serres jaunak dionez, horiek menderatzea da gizonaren oraingo lana.

Frantziako Akademiako Leprince-Ringuet jaunaren iritzi (zientifiko oso sonatua bera), zientismoaren indar totalitarioak ekarri du batipat baliogoen gauro krisia. Honek ekarri du autoritatearen autza, honek teknokraziaren nausitza, eta honek ezagutzen dugun guzizko "polizio" hau.

Orain arte Leprince-Ringuet jaunak esandakoaz Lanza del Vasto eta gainontzeko izadi-zaleak pozik leudeke. Ez gero dioreanekin ordea: zientifiko honek ez bait du zientzia ukatzen, ez gutiesten. Mundugintzan, dagoien lekua eman behar zaio la dio. Eta leku hori ez da, orain bezala, lehenengoa. Hori da dena.

Versailles-eko "Palais des Congrès" delakoan Urriaren leian egindako "mahain inguru" batetan Leprince-Ringuet jaunari hau dena eta askoz gehiago entzuteko zoria izan nuen.

Mahain-inguru uhori, izan ere, izan naizenetik interesgarriena izan zenera gustorako. Aipatutakoarekin batera, han zeuden Elgozy idazlea ere, eta gero Gruson ekonomista ezaguna, eta batipat Garaudy filosofoa.

Eztabaida, berehalaxe berotu zen. Hizlari bakoitzak bazuen asko esateko. Eta egia esan, gaia agortzea ez da batera erraza.

Guztitan ahora zertoren lehen galdura hau zen: Bizitza eta mundua aldatu? Baina zergatik?

Elgozy jaunak erantzun erraz bat emanen du: bizi ezina delako. Aire garbia arnasteko, ur garbia edateko... Aneto puntura joan behar duzu. Eta zarata? Nork jasan, egun eta gau, automobilen eta abioien eten-gabeko zarata? Elgozy jaunak, hain zuzen, problema horietaz, liburu bat idatzia du: "Les damnés de l'opulence", alegia, ugaritasunaren kondemnatuak. Hori, hiri handietako jendetza jarri, eta gainera teknologia ahalguztidunaren zientziako trinia... eta agian Elgozyren ondorio beretara helduko zara.

Gruson jaunak ere aldatu beharra aldarrikatzen du, eta hori gaurko Hazkuntza eta Justizia elkargaitz direlako. Ekonomista protestante honen iritzi, gure garaiko karakteristika nagusia hauxe da. Sustrain bertan dago usteldurik gure gizar-terko hau, giza-hebururik gabekoa da-ta.

Aldatu behar dela, eta zergatik aldatu behar den ere adierazi ondoren, beste hauzi bat dator mahain gainera: Nola?

Mundutik berezturik ala dena apurtu eta deusezturik? Hautapen posibleko bezala biok utziaz, ez bata eta ez beste hautatzen du Gruson-ek. Arrazoizko plangintza baten bidez gizar-terako konpontzea heldu ditzakeela uste du.

Baina bide bat ala bestea hartu, betiere esperantza beharko dela dio, eta gero eta gehiago gainera.

Hori da, hori da, dio Garaudy-k. Esperantzaren baliogoa azpimarkatu behar dela azpimarkatzen du berak.

Antsiaturik eta noraezean dagoen mundu batek, lehen lehenik esperantza du beharrezkoen. Esperantza, bai, azkeneraino, hebururaino garmazkian bultzatzaile gaitu hori. (Tresnagai-luen erlijioa) besterik ez duen gizar-terari, heburua, xedea proposatu behar zaio. Horrek bakarrik ematen bait dio zentzua bizitzari bezala munduari.

Elgozy-k, nahiz-eta horren beltz gizar-terako ikusi, kontzientzia hartzearekin eta kontzientzia aldatzearekin gizar-terari erremedioa bilatu diola dirudi gero. Ezetz, dio Garaudy jaunak. Kontzientzien aldaketak, gizonaren aldatzea behar beharrezkoa da zalantzarik gabe, baina esturturen aldaketak ere hori bezain preminazkoa da. Biak batera. Eta bide horrek izen bat du, Garaudy-ren pentsamenduan: **autogestioa**. Pentsamenduan lau puntutatik Versailles-eko Ekintza Sozialaren mahain inguruan bildu ziren lau gizonok han zuzen batean: gaurko gizar-terko mesfidantza eta biharkoaz esperantza.

Joan Mari Torrealdy

Zeruko ARGIA

Zuzendarie:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Keputxinoek argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Buriade-Plampona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPIE SARIA:
Berruan 300 pezeta
Korroko batasunetako errietan 350 pezeta
Azerrietako beste errietan 370 pezeta
Aurrez galdetu
Sartmetan (ale bekotzea) 7 pezeta